

LAIA taldearen (Mutriku, 2006ko uda) lehen ekitaldia Mungiako jai-interkultural batean aritzeko baino ez zen izan, han ikusi zuten Laia taldearen proiektuak ibilbide luzeago bat izan zezakeela eta abesti gehiago sortzeari ekin zioten. Taldean aldaketa txiki batzuk izan dira, eta taldearen gaurko egitura modu honetan dago: Juanmi, gitarra eta ahotsa (Nok eta Lur Gor taldeetan ibilitakoa). Unax, baxua eta ahotsak (Seneka eta Botox taldeetan jo du). Unai, gitarra eta ahotsak (Sortuz taldean ibilitakoa). Aitor, bateria (Garden, Axular 3.0, Lur Gor, Kemen Lertxundi, Tuboskapi taldeetan jotakoa). Gazteak baina eskarmentua zuzenekoetan. Lehen diskoa 2007an grabatu zuten (Izenbururik gabeko istoriak, Baga-Biga 2007) eta urte berean, nahiz eta desorduetan, Bilbao Live jaialdi erraldoian jo zuten, bultzada garrantzitsua Laia taldearentzat.

Laia taldearen bigarren diskoak "II" izenburua du. 2009an zehar grabatu dute eta estudio desberdinak erabili dituzte: Santos Records estudioetan Mikel Santosen gidaritzapean bateriak grabatu dira; gitarrak eta nahasketak Txufo Wilsonnek egin ditu, M.R.K. lokaletan baxuak eta ahotsak grabatu dira; Lamina estudioetan Natxo Libertyk masterizazioa egin du. Diskoak laguntzaileak hauek izan ditu: Gemma Fernandezek "Iparra eta ekia" abestian ahotsak sartu ditu. Igor Bilbaok (Laia taldekide ohia) "Bidearen amaieran" abestian gitarra riff bat jo du. Mirenek (Malkotxu): "Ezer esan gabe" eta "Bidearen amaieran" abestien hitzak idatzi ditu. Miak "Iparra eta ekia" abestiko katalanezko hitzak idatzi ditu.

Laia taldeak euren bigarren diskoari ("II") gero eta sentimendu gehiago jarri dio. Laia taldearen diskoa bihotzarekin eta poliki-poliki egina dago. Laia taldeak ez du presa handiegirik izan, ahalik eta diskorik zintzoena plazaratu nahi izan du. Grabaketa Laia taldearen esku geratu da. Dakiten guztia jarri dute eta eskarmenturik ez duten alorretan jo dute laguntzaileengana, nashasketak eta masterizazioa egiteko. Laia taldeak bere nortasunaren bila jardun du, eta kantuen norabide bikaina lortu dute eraikitzea buelta gehiegi eman gabe. Laia taldeak diskoa irekitzeko eurek konposaturiko musika kutxa baten doinuekin hasten da. Musika kutxaren doinua opari bat da, ezustea. Lotarako zein iratzartzeko balio dezake. Bi mundu besberdin horiek planteiatzen dizkigu Laia taldeak. Metalaren esparruan goxo eta samur dabil. Doinu indartsuen parean utzi dizkigu ahots liluragarriak eta leunak. Batzuetan entzungo ditugu oihu lakar eta latzak, baina falseteen melodia txundigarriekin nahasturik. Gaua eta eguna. Laia taldeak kantu bakoitzari bere ifrentzia bilatu dio. Bi mundu antagonikoak uztartu ditu disko berean eta oso musika melodiko eta erakargarria egitea lortu dute. Laia taldea metala eta rock melodikoan barneratu da eta eroso dabil.

1.- Laia taldearen musika oinarriak tentsioan du babesa? Melodia musika tresnen kontra, edo bien arteko batuketara?

Bada, gure musika gure askatasun gune bakarra da. Riff bakoitzak bere zentzua eta sentimendua du, bizirik dago, eta hori isladatzen dugu abesti bakoitzean, bai indarra eta gorrotoa, bai samurtasuna eta milikeria. Horren batura da Laia. Askotan melodia batek soilik ez gaitu identifikatzen, horregatik disko honetan beste erregistro batzuk ere erabili ditugu. Beraien artean garrasiak eta falseteak.

2.- Laia taldearen hitzak maitasuna dute hizpide; pertsonen arteko maitasuna, herriarekiko maitasuna, sistemaren ustelkeriari aurre egiteko maitasuna. Maite duzue maitasuna.

Bada, maitasuna badago. Etsipena, gorrotoa, sistemaren aurka joateko maitasuna esango nuke. Askotan hain arraro sentitzen gara munduarekin, hain arrotz. Orduan, zuk esaten duzun maitasun horrek askeago egiten gaitu. Egia da gure herria maite dugula gure nortasunaren parte baita; sistemaren aurka asko egiten dugula gure herriak beti asko sufritzen duelako beren erruz, baina pertsonen arteko maitasunari dagokionez, agian, ez gara adituenak horri buruz hitz egiteko; baina bai, maitasun galduari edo ezari buruz.

3.- Laia taldeak jo dituen zuzenekoetan jaialdi erraldoia dago. Irakaspenik bai?

Egia da Bilbao Live-n jotzea, edota HatortxuRock jaialdian, oso polita da baina horrelako gauzak bakarrik sariak dira. Guri eszenatoki erraldoi baten jotzeak edo gaztetxe batean berdin digu, ez medioen aldetik, baizik eta gu, eszenatokira igotzen garenean dugun onena ateratzen saitzen garela bost pertsona egon edo 20.000. Horrelako jaialdiak zeu izatea irakasten dizu. Horrekin zer esan nahi dudana da jasotzen dituzun, kritika, animoa eta indiferentziak izan behar zaren pertsona izatea laguntzen dizute. Badago egoa zeruraino igotzen zaion jendea, baina guk oinak lurtean finko ditugu.

ritxi aizpuru (2009ko abenduaren 10)

Juanmi: gitarra, ahotsa eta pianoa

Unax: baxua eta ahotsak

Unai: gitarra eta ahotsak

Aitor: bateria

